

JAIZKIBEL
Maddi Mitxelena
Oiartzun

—Ama, zergatik?

Nire adar tartetik ikusi zaitut, hor zaude amari galdezka, negar-malkoei ezin eutsiz.

—Aitarekin hitz egiten saiatu naiz, baina ez diot hitz bat bera ere aterarazi; batzuetan honekin guztiarekin bukatu nahiko nuke eta zeure ondoan egon betiko. Bizimodua oso gogorra da zu gabe, zeure beharra dut. Errudun sentitzen naiz. Asko maite zaitut, ama.

Horrelaxe bukatu duzu esaldia, malakoak lehortu eta etxera abiatu zara. Gustura kontsolatuko zintuzket.

Jaizkibeleetik itsasoa ikusten da, egunabarra da eta haize freskoa sentitzen dut enborretik barrena, lasai nago goizeko ihintzaz disfrutatzen.

Baina lasaitasunak zu iritsi zarenean alde egin du; garrasi egin duzu, «aaa!», eta amaren ondoan eseri zara.

—Ama, hiru hilabete daramatzat amona ikusi gabe eta dena zeure errua da! Aitak ez du ni amonarekin egoterik nahi, zure heriotzari buruz amo-

nak *zerbait* dakielako eta ez duelako nik ezer jakite-rik nahi! Baina ez da zuzena hori, amona ikusi nahi dut nik!

Haserre zaude, oso haserre, baina amarekin baino zeure buruarekin gehiago, eta amarekin ordaindu nahi duzu haserre hori. Zazpi bider nahastu duzu gogotik burua!: ea zergatik ez zinen han egon bera babesten, zergatik ez zenion laguntzarik eman...

Ordulariari begiratu diozu eta korrika joan zara.

Bi egun jarraian zeure ahotsa entzun gabe pasatu dira, ez zara amarekin hitz egiteko agertu, zure sentimenduak azaltzeko; uste dut ez zaitudala berriro ikusiko... Baina hurrengo eguna iritsi da.

—Ez dakizu zer gertatu den!

Lore-sorta eskuan eta irribarrea ahoan etorri zara; lehenengo aldia da irribarretsu ikusten zaitudala eta eguna alaitu egin didazula sentitu dut.

—Amonarenera joan naiz, eta gertatutakoaren arrazoiak eman dizkit... Sentitzen dut, ama! Barkamena eskatzeko moduetaz pentsatzen egon naiz, eta ideia onena poema bat idaztea iruditu zait. Badakizu ez naizela poemak idazten ona, eta idatzi dudanarekin konformatu beharko duzu, bada.

Orri bat poltsikotik atera eta poema irakurtzen hasi zara:

«Ama,
hemen nago eta zu han,
horren gertu, baina aldi berean hain urruti.
Gogoan ditut

zeure irribarre, ahots eta begirada sakonak.

Bihotzean zuloa daukat,
zeure besarkada goxoek
eta gauero kontatzen zenizkidan ipuinek utzitakoa.
Azkarregi joan zara,
oraindik behar zaitut,
zeure beharra dut».

Ama bizirik dagoela sentitu duzu eta indar guztiarekin horixe desiratu.

—Gustatu al zaizu?

Galdetu duzu erantzunen bat izango delakoan...

Ez du inork ere erantzun eta begiak lanbrotuta alde egin duzu. Gustura emango nizuke besarkada bat.

Gaur papera eta arkatzarekin etorri zara Jaizki-belera, ni neu marraztuko nauzu, baita nire atzeko paisaia eta ama ere, bizirik balego bezala...

—Ama, psikologia-ikasketak egin nahi ditudala pentsatu dut.

Uste osoz esan duzu.

—Ezin izan zintudan zu lagundu, baina besteak lagundu nahiko nituzke, aukera hori eduki, behinik behin.

Zirriborroa egina duzu, orain marrazkia hobetu eta margotu egin behar duzu.

—Aita etortzea ere lortuko dut.

Marrazkia bukatzeko, neu margotzea falta duzu. Hosto asko marraztu dizkidazu eta enbor marroi-marroia; oso ondo marraztu nauzu.

—Aita, etorri, hementxe dago!

Nire adar tartetik ikusi zaitut; hor zaude aitarekin, emozioz atera zaizkizuen malkoei ezin eutsiz.

—Buruaz beste egin zenuenean, ez nuen ulertu zergatik zeunden gaizki, nik ondo ikusten zintudan... Baina Urkok eman didan laguntzari esker, arrazoiak ulertu ditut. Maite zaitut.

Egunero ikusten zaituztet biok elkarri eskua emanda, igo eta amari egunaren berri ematen.